


M LH3

2016/2017



Zuzenketarako koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Taldea/Gela:

Herria:

Data:

**Matematika
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 3.a

1. zatia



45 minutu dituzu probaren
lehen parte hau egiteko

Jarraibideak

Lehen ariketan, irakasleak ozenki irakurriko ditu zenbait problema, bata bestearen ondotik, denbora emanez zuk erantzuna idazteko behar den tokian.

Gero, testu batzuk irakurri beharko dituzu eta galderak erantzun irakurri duzunari buruz. Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau erantzun posible izanen dituzte eta, haietatik, aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Adibidez:

Zenbat da $2 + 5$?

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

Zenbat da $2 + 5$?

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna osatzeko puntuekin seinalatzen den tartean:

Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.

.....


1.- Buruzko kalkuluko ariketa.

	Erantzuna
A kalkulua	21
B kalkulua	42
C kalkulua	1000
D kalkulua	67
E kalkulua	8
F kalkulua	17

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen
1	3 edo 4 erantzun zuzen
2	5 erantzun zuzen
3	6 erantzun zuzen

Gelako arbela

Ariketa batzuk egin behar ditugu
gelako arbelean.




2.- Zein da arbelean idatzirik agertzen den zenbakia?

- A. 10869
- B. 18069
- C. 18079
- D. 18609




3.- Nola idazten da arbelean idatzirik dagoen zenbakia?

- A. Sei mila bostehun eta hogeita hemeretzi.
- B. Hirurogeita hiru mila bostehun eta bederatzi.
- C. Hirurogeita bost mila eta hogeita hemeretzi.
- D. Hirurogeita bost mila hirurehun eta bederatzi.




4.- Zein da arbelean agertzen den zenbakiaren deskonposizioa?

- A. $80000 + 400 + 20 + 6$
- B. $8 \text{ HM} + 4 \text{ MB} + 2 \text{ H} + 6 \text{ B}$
- C. $80000 + 4000 + 200 + 6$
- D. $8 \text{ MB} + 4 \text{ E} + 2 \text{ H} + 6 \text{ B}$



5.- Ordenatu txikienetik handienera arbeleko zenbakiak.




$$35017 < 35107 < 35701 < 35710$$

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Zuzen ordenatu ditu 4 zenbakiak.

6.- Asmatu behar duzu zein den arbelean ezabatu den zenbakia, ematen dizkizugun pistei jarraituz:


- 4 zifrako zenbakia da.
- Ahal den zenbaki txikiena da.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Idatzi du 1001 zenbakia.


7.- Hurbildu arbeleko zenbakia ehuneko gertuenera.

- A. 4700
- B. 4710
- C. 4800
- D. 5000



Kalkulu saioa

Ikasleek eragiketa batzuk egin behar dituzte.



8.- Osatu segida hau.

17100	17600	18100	18600	19100	19600	20100
-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen
1	3 erantzun zuzen
2	4 erantzun zuzen

9.- Egin zatiketa hau:

$$\begin{array}{r}
 8 \ 5 \ 4 \quad | \quad 3 \\
 2 \ 5 \quad \quad \quad 2 \ 8 \ 4 \\
 1 \ 4 \\
 2
 \end{array}$$



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Zatidura 284 eta hondarra 2.

10.- Osa ezazu biderketa hau.

$$\begin{array}{r} 3592 \\ \times \quad 7 \\ \hline 25144 \end{array}$$




Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	25144

11.- Ikusi ondoko eragiketa:

$$4 + 4 + 4 + 5$$


Zer eragiketak du aurrekoaren emaitza berdina?

- A. $4 + 3 + 5$
- B. $4 + 3 \times 5$
- C. $4 \times 3 + 5$
- D. $4 \times 4 + 5$



Baserri-eskola

Ikasleek irtenaldia egin dute baserri-eskolara.



- 12.- Baserrian 4 oilo daude. Horietatik, 3 oilok 18 txita dituzte bakoitzak eta beste oiloak 14 txita ditu. Zenbat txita dira, guztira? Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Baliozko zenbait metodo, adibidez:

A metodoa: $18 + 18 + 18 + 14 = 68$ txita

B metodoa: $18 \times 3 = 54$; $54 + 14 = 68$ txita



Baserrian**68**..... txita daude.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 13.- Astelehenean 43 gazta saldu ziren baserrian; asteartean, astelehenekoen bikoitza, eta asteazkenean 39 gazta. Baserrian zenbat gazta saldu ziren hiru egun horietan?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.



Egin beharreko kalkuluak.

Baliozko zenbait metodo, adibidez:

A metodoa: $43 \times 2 = 86$; $43 + 86 + 39 = 168$ gazta

B metodoa: $43 + 43 + 43 + 39 = 168$ gazta

Saldu ziren**168**..... gazta.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 14.- Baserri-eskolan 270 ardi dituzte. Haien ilea mozteko, ardiak bi multzo berdinetan banatu dituzte. Zenbat ardi daude multzo bakoitzean?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.



Egin beharreko kalkuluak.

Baliozko zenbait metodo, adibidez:

$$270 : 2 = 135 \text{ ardi}$$

Multzo bakoitzean**135**..... ardi daude.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

15.- Zelai batean 62 bildots daude eta beste batean 15 gutxiago. Zenbat bildots daude guztira?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Baliozko zenbait metodo, adibidez:

A metodoa: $62 + 62 = 124$; $124 - 15 = 109$ bildots

B metodoa: $62 - 15 = 47$; $62 + 47 = 109$ bildots



Guztira,**109**..... bildots daude.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

16.- Begiratu taulan baserrira etortzen diren bisitarien kopurua.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GOIZEZ	42	73	48	69	24
ARRATSALDEZ	27	19	33	12	0

a) Asteazkenean zenbat bisitari etorri dira baserrira?

81 bisitari

b) Aste honetan baserriak zenbat bisitari izan ditu arratsaldez?

91 bisitari

c) Astelehen goizean zenbat bisitari gehiago izan dira astelehen arratsaldean baino?

15 bisitari

d) Zer egunetan etorri dira ostegun arratsaldeko bisitarien bikoitza?





Ostiralean (goizez)


e) Zenbateko aldea dago astearteko eta osteguneko bisitari kopuruen artean?

11 bisitari

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	0 erantzun zuzen
0 – 2.5	0.5 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.

17.- Begiratu animalien taulari eta horiek irudikatu barra-grafikoan.

			
5	16	6	11



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Diagramaren barra guztiak zuzen daude. Oharra: 5 eta 11 gutxi gorabehera beren altueran egon beharko dira.




LEHEN PARTEA BUKATU DUZU

**Ez joan hurrengo orrialdera
irakasleak agintzen dizun arte.**

M LH3

2016/2017



Zuzenketarako koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Taldea/Gela:

Herria:

Data:

**Matematika
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 3.a

2. zatia




45 minutu dituzu probaren
bigarren parte hau egiteko.

Animalien parkean

Jon Lehen Hezkuntzako 3. maila ikasten ari da. Aste Santuko oporretan animalien parke batera joan da bere familiarekin. Ikusi ditu otsoak, itsas lehoiak, elefanteak, lehoiak, jirafak, narrastiak...

Ikusi parkean zehar egin duten ibilbidearen irudia.



18.- Jon parkean sartu da bere arreba gaztearekin eta bi aitona-amonarekin. Begiratu prezioen taulari. Guztira, zenbat ordaindu dute sarrerengatik? Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Baliozko zenbait metodo, adibidez:

A metodoa: $23 + 23 + 14 + 14 = 74 \text{ €}$

B metodoa: $23 \times 2 = 46$; $14 \times 2 = 28$;

$46 + 28 = 74 \text{ €}$

Prezioak

Helduen sarrera 1 .. 23 €

Haurren sarrera 1 .. 14 €

Guztira, **74** euro ordaindu dituzte

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

19.- Jonek parkeko ibilbide guztia egin du, geziei jarraituz. Jonek zenbat metro egin ditu guztira parkean, sartzen denetik ateratzen den arte?

- A. 1900 m
- B. 3100 m
- C. 4150 m
- D. 4300 m

20.- Goizean parkeko sarreratik elefanteen eremuraino joan dira, gezien ibilbideari jarraituz. Arratsaldean seinalatutako ibilbidea bukatu dute. Goizean zenbat metro gehiago ibili dituzte arratsaldean baino? Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Baliozko zenbait metodo, adibidez:*

$$1200 + 800 + 150 + 350 = 2500$$

$$600 + 1200 = 1800$$

$$2500 - 1800 = 700 \text{ metro}$$

Goizean **700** metro gehiago ibili dituzte arratsaldean baino.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

21.- Kalkulatu Jonek parkean ikusi duen uso baten pisua.

- A. 50 gramo baino gutxiago.
- B. 200 baino gehiago eta 500 baino gutxiago.
- C. 700 baino gehiago eta 1000 baino gutxiago.
- D. 1000 gramo baino gehiago.



22.- Begiratu ondoko taulan parkeko lau animalari buruzko datuak.

	Pisua	Garaiera	Ernaldia (haurdunaldia)	Bizi-luzera (bizi urteak)
Jirafa	1100 kg	300 cm	15 hilabete	20 urte
Elefantea	5000 kg	400 cm	24 hilabete	65 urte
Otsoa	40 kg	65 cm	2 hilabete	16 urte
Lehoia	180 kg	100 cm	4 hilabete	18 urte

a) Guztira, zenbat kilogramo pisatzen du 8 otsoko taldeak, guztiek pisu berdina badute?

320 kg

b) Elefante batek zenbat metroko altuera du?

4 metro

c) Zenbat urte irauten du elefante baten ernaldiak?

2 urte.

d) Jirafa bat zenbat metro altuagoa da lehoi bat baino?

2 metro

e) Ordenatu animaliak bizi-luzeraren arabera, txikienetik handienara.

Otsoa < **Lehoia** < **Jirafa** < **Elefante**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	0 erantzun zuzen
0 – 2.5	0.5 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.

23.- Parkean sugeak, inurriak eta zizareak daude. Zer unitate da egokiena animalia bakoitzaren luzera neurria adierazteko?

- A. Sugeak **mm**-tan, inurriak **metrotan** eta zizareak **cm**-tan.
- B. Sugeak **cm**-tan, inurriak **mm**-tan eta zizareak **metrotan**.
- C. **Sugeak metrotan, inurriak mm-tan eta zizareak cm-tan.**
- D. Sugeak **metrotan**, inurriak **cm**-tan eta zizareak **mm**-tan.

24.- Elefante heldu batek 8 hl ur edan ditu 5 egunetan. Egunero ur kantitate berdina edan du. Zenbat litro edan ditu egun bakoitzean? Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.
Baliozko zenbait metodo, adibidez:
 8 hl = 800 litro
 800 : 5 = 160 litro




Egun bakoitzean**160** litro ur edan ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

25.- Jon eta bere familia 10:30ean sartu dira parkean, eta 17:45ean atera. Zenbat denbora pasa dute parkean?

- A. **7 ordu eta 15 minutu.**
- B. 7 ordu eta 30 minutu.
- C. 7 ordu eta 45 minutu.
- D. 17 ordu eta 45 minutu.

26.- Jon eta bere familia elefanteen eremura iritsi dira erloju honek markatzen duen orduan.



Eremu horretan 50 minutuz egon dira. Idatzi erloju digitalean eremu horretatik zer ordutan atera diren.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	15:20

Plastika saioa

Ikasleek zenbait jarduera eginen dituzte plastika saioan.




27.- Begiratu plastikako irakasleak erakutsi dien irudiarri.
Zer gorputz geometriko ikusten dira irudian?

- A. Kuboak, prismak, esfera eta triangeluak.
- B. Karratuak, esfera, zilindroak eta piramideak.
- C. Kuboak, zirkuluak, piramideak eta zilindroak.
- D. Kuboak, piramideak, zilindroak eta esfera.



28.- Hona zer marrazki egin duen Leirek.



Zenbat laukizuzen daude marrazkian?

Marrazkian 5 laukizuzen daude.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	5


29.- Oskarrek marrazki hau egin du. Nolakoak dira marrazkian ageri diren lerroak?

- A. Ebakitzailak eta paraleloak.
- B. Zuzenak eta ebakitzailak.
- C. Zuzenak eta paraleloak.
- D. Paraleloak eta perpendikularrak.



30.- Amaiak triangelu hau ebaki du. Hau triangelu da.

- A. Aldeberdina.
- B. Eskalenoa.
- C. Isoszelea.
- D. Aldeberdina eta isoszelea.



Lehen Hezkuntzako 3. maila				
MATEMATIKA gaitasuna				
	Galdera	Mota	Erantzun zuzena	Gehienezko puntuazioa
Buruzko kalkulua	1	Irekia	-----	3
Gelako arbela	2	Itxia	B	1
	3	Itxia	D	1
	4	Itxia	C	1
	5	Irekia	-----	1
	6	Irekia	-----	1
	7	Itxia	A	1
	Kalkulu saioa	8	Irekia	-----
9		Irekia	-----	1
10		Irekia	-----	1
11		Itxia	C	1
Baserri-eskola	12	Irekia	-----	1
	13	Irekia	-----	1
	14	Irekia	-----	1
	15	Irekia	-----	1
	16	Irekia	-----	2,5
	17	Irekia	-----	1
Animalien parkean	18	Irekia	-----	1
	19	Itxia	D	1
	20	Irekia	-----	1
	21	Itxia	B	1
	22	Irekia	-----	2,5
	23	Itxia	C	1
	24	Irekia	-----	1
	25	Itxia	A	1
	26	Irekia	-----	1
Plastika saioa	27	Itxia	D	1
	28	Irekia	-----	1
	29	Itxia	C	1
	30	Itxia	B	1
			Guztira	36